

AURKIBIDEA

- 1) SARRERA
- 2) DEKLARATZAILEEK JARDUTEKO MODUA
- 3) M.I.Z-EKO KUDEATZAILEEK JARDUTEKO MODUA

1) SARRERA

- a) epuertobilbao plataformaren bidez kudeatutako informazio-trukaketa guztientzako kontingentzia-prozedura aktibatuko da, sistema erabilgarri ez dagoela hauteman eta 15 minutu pasatu ondoren.
- b) epuertobilbao plataformaren Erabiltzaileentzako Arreta Zentroak (E.A.Z) aktibatuko du prozedura, epuertobilbaoren erabiltzaile guztiei mezu bat bidalita. Mezuan adieraziko du gertakaria zergatik izan den eta zenbat irautea aurreikusten den.
- c) Bilboko E.A.Zren telefonoa, 902 10 16 14, eskuragarri egongo da gertakariari buruzko edozein kontsulta egiteko edo informazio eskatzeko.
- d) Sistema erabilgarri ez dagoen denbora-tartean, hirugarren kontaktu-bide bat prestatuko da 608 794 425 telefono mugikorraren bidez (gertakarietan soilik funtzionatuko du).
- e) Gertakaria konpondu eta gero, Bilboko E.A.Zk mezu elektronikoko bat bidaliko du, zerbitzua berriz ezarri dela jakinarazteko.

2) DEKLARATZAILEEK JARDUTEKO MODUA

Eskaera bat bete behar da zerga-partida (1-n ekipamendutan banatua) edo edukiontzi (1-n partidekin) bakoitzeko.

M.I.Z posizionamendurako eskaera kudeatzeko kontingentzia-prozedura hau aktibatzeke abisua jaso ondoren, honela jokatu behar dute deklaratzailleek:

- **Fax bidez** eskaera bidali behar dute 94 483 97 76 zenbakira, B.P.Aren webgunean eskuragarri dagoen ereduaren bidez (www.bilbaoport.es).

Oharrak:

- Ikuskapena hurrengo lanegunean egiteko eskatu diren **M.I.Z barrutiko posizionamendu-eskaerak** bakarrik bidali behar dituzte deklaratzailleek.
- Terminaleko ikuskapenak ez daude larrialdi-prozedura honi lotuta; beraz, ikuskapenak beharrezkoak badira, deklaratzailleak dagokion erakundearekin jarri behar du **zuzenean** harremanetan.
- Hurrengo lanegunean, **16:00ak** baino lehen bidali behar da eskaera.

3) M.I.Z-EKO KUDEATZAILEAK JARDUTEKO MODUA

M.I.Zeko kudeatzaileak aurkeztu diren eskaerak jaso, eta posizionamenduen zerrenda bat egiten joango da, baina ez du jaso izanaren agiririk egingo deklaratzailleentzat. Deklaratzailleak eskatutako data/ordua M.I.Z barrutiaren jardunaren arabera izango da.